

"JAHWEH"
EUSKARAZKO ELIZEN ARTEKO BIBLIA DELA ETA
(Azalpen kritikoa)

SARRERA

Karmel aldizkariko azken zenbakiko artikulua gertatzen ari ginela, euskarazko Biblia-itzulpenetan "Jahweh" nola agertzen zen jakin nahian, *Elizen arteko Bibliara* (EAB) jo nuen, liburu eder honetako idazkera eredutzat hartzeko; eta pixka bat harriturik gelditu nintzen itzulpen honetan "Jahweh" ez zela agertzen ikusiz. Orduan neure baitan pentsatu nuen: zergatik egi-ten ote du hori EABk?

Hori dela eta, ikerketa txiki bat egin dut, "Jahweh", "Jahweh-ren Aingerua"... espresioak nola agertzen diren itzulpen ezberdinetan ikusteko. Ikerketa hau neuk erraz eskura nitza-keen itzulpenekin egin dut; horrek hau esan du: ez ditudala itzulpen guztiak ikusi, ezta gutxiagorik ere..., baina uste dut, adibide bezala aukeratutako biblia-itzulpenek balio dutela gai honi buruzko gaurko egoera ikusteko. Eta ondorioak ere he- mendik aterako ditugu...

Euskarazko EABren errazoiak jakin nahian, erantzuna libu-ru honen 83.orrian aurkitu nuen: "YHWH. Ziur aski *Jahweh* ahoskatzen zen; baina, errespetuaren errespetuz, hebertarrek ez zuten izen sakratua esaten, eta irakurtzean *Adonai* -hots,

Jauna- hitzaz ordezkatzzen zuten. Antzinako itzulpenek JHWH hori *Jauna* itzuli zuten, eta usadio horri jarraitzen diote geroztik itzulpen gehienek, gurea barne”.

Hemen esaten diren gauza batzuk eztabaidagarriak dira: “Antzinako”, noizkoak?, Bulgataren arabera egindako itzulpenak? (Jakina!), edo eta aurrekoak? (Grekoz egindakoak?). “Usadioa”; ze hizkuntzatan? Euskaraz? Euskaraz ba al dago benetako tradizio zientifikorik?. “Gehienak”, baina noizkoak? Bulgatari jarraituz egindako itzulpenak, edo mende honetan exegeta-itzultzaile serioen itzulpenenak?... Gainerako itzulpenek “itzulpen-tradiziorik” ez dute aipatzen arrazoi bezala. Adibidez, Elizen arteko frantsesezko Bibliak (TOB) azalpen laburra ematen du: *Yahweh* edo *Yahwob*, Kristoren aurreko IV. mendetik juduek izen hori ahotan ez hartzeko ohitura hartua zuten.

Nahiko harrigarria da erabakia bera ere: “Jahweh” izena desagertarazteko erabakia...

Biblia, ikuspegi askotatik hausnar liteke: hizkuntza aldetik, hizkuntza-estilo aldetik, literatura aldetik, historia eta teologia aldetik, etab. Eta askotan arazo ugari agertzen dira ulertu eta itzultzeko ahaleginetan. Eta arazo ia ulertezina da gaur erabiliko dugun gaia: Pertsona edo subjektu bera izen ezberdinekin agertzen da, eta, hau da harritzekoa, eszena edo kontakizun labur baten barruan.

Baina ez dezagun arrazoi errazik erabili, izen ezberdinen aldaketa hori iturri ezberdinetako testuen arabera dela (*J, E, P*) pentsatuz, ez; nahasi gabeko testuetan ere (hau da, adibidez, Jahwista hutsak diren testuetan) arazo berbera agertzen baita. Horregatik galdera hau egin beharra dago: Zergatik? Izen horien artean “Jahweh” ere agertzen da. Hori dela-eta, hausnaketa batzuk egingo ditut hemen...

“Elohim” (Jainkoa), “Jahweh”, “Malakh Jahweh” (Jahweh-ren aingerua), “Malakh Elohim” (Elohim-en aingerua), etab. espresioak askotan agertzen dira Biblian zehar..., baina nik lantxo honetan batez ere hiru testu aukeratzen ditut, adibide bezala:

1. *Ir 3,1-6;* 2. *Ir 13,17 - 14,31;* 3. *Ep 6, 11-24*

Esan dudan bezala, itzulpen ezberdin askoren artean, gutxi batzuk bakarrik aukeratu ditut: erraz eskuratzekoak: euskarazko Bibliaren itzulpen oso guztiak, bost dira bakarrik eta, eta beste hizkuntzetako batzuk:

Euskaraz:

- a. Duvoisin (*Bible Saindua*, lapurteraz) eta Uriarterena (*Biblia edo Testamentu Zar eta Berria*, Londres 1959, gipuzkeraz) Bulgatatik eginiko itzulpenak (1859-1868). (*Duvoisin, Uriarte*).
- b. Olabideren *Itun zar eta Berria* (Bilbao, 1958). (*Olabide*).
- c. J. Kerexetaren *Euskal-Biblia (bizkaieraz)*, (Bilbao 1976). (*EB-1976*).
- d. *Elizen arteko Biblia*, (Donostia, 1994). (*EAB-1994*).

Gazteieraz:

- a. E. Nacar - A. Colunga (*Sagrada Biblia*), Madrid ²⁷1968 (BAC 1): (Nacar-Colunga SB).
- b. J.M. Bover - F. Cantera (*Sagrada Biblia*), Madrid ⁶1961 (BAC 25-26) (Bover-Cantera).
- c. Profesores de Salamanca (*Biblia Comentada*, I), Madrid ²1962 (BAC 196). (*Prof.Salam.-1962*)
- d. Profesores de la Compañía de Jesús (*La Sagrada Escritura*, I), Madrid 1967 (BAC 267). (*SJ-1967*).
- e. L.A. Schöckel - J. Mateos (*Nueva Biblia española*), Madrid 1975. (*Schöckel*).
- f. *La Santa Biblia*. (Ed. Paul.), Madrid ¹¹1979. (LSB-1979).
- g. *Biblia de Jerusalén*, Bilbao 1978. (*Bibl-Jerus-Bilbao*).
- h. *La Biblia* (La Casa de la Biblia) Edición aprobada por la Conf. Episc. Española. Madrid 1992. (*LB-1992*).

Frantsesez:

- a. *La Bible de Jérusalem...* Paris 1992, 1845 orr. (LBJ).
- b. Traduction oecuménique de la Bible traduits sur les textes originaux hébreu et grec. Paris 1977, 1733 or. (TOB).

Alemanez:

a. *Die Bibel. Altes und Neues Testament. Einheitsübersetzung.* Herder (Freiburg-Basel-Wien) 1980. (*Bibel-1980*).

b. *Die Bibel* (...) Jeruselemer Bibel, Herder (Freiburg-Basel-Wien) ² 1968. (*Jerus.Bibel-1968*).

1. HIZKUNTZA ETA BIBLIAREN ITZULPEN EZBERDINAK "JAHWEH"REN EGOERA

a. Euskaraz

(*Duvoisin//Uriarte//Olabide//Kerexetaren-EB-1976//Elizen arteko Biblia, (EAB-1994)*).

Euskarazko bost itzulpen nagusiak hiru mailatan jar genitzake: a) Itzulpenen itzulpena egin dutenak, hau da, jatorrizko hebreo hizkuntzatik itzuli ez dutenak; Duvoisin, Uriarte eta Kerexeta: hauetan guztietan *Jahweh* "Jauna" bihurtzen da. b) Hebreo hizkuntza originaletik itzuli zuen Olabidek: *Jahweh* errespetatua izan da ("Yaube"). c) Jatorrizko hizkuntza eta beste itzulpenak kontuan izan dituen "Elizen arteko Biblia": hemen *Jahweh* "Jauna" itzultzen da.

Ir 3,1-6 (14):

Jainkoa, Yainkoa, Jaungoikoa (= *Elohim*): Duvoisin, Uriarte, Olabide, Kerexeta, EAB.

Jauna (= *Jahweh*): Duvoisin (eta Uriarte), Kerexeta, EAB.

Yaube (= *Jahweh*): Olabide.

Jaunaren Aingerua, Jaungoikoaren Aingerua (= *Malakh Jahweh*): Duvoisin eta Uriarte (v.2: Jaunaren Aingerua idatzi beharrean "Jauna" bakarrik idatzi zuten), Kerexeta, EAB.

Yauberen Aingerua (= *Malakh Jahweh*): Olabide.

Ir 13,17 - 14,31:

Jainkoa, Yainkoa, Jaungoikoa (= *Elohim*): Duvoisin, Uriarte, Olabide, Kerexeta, EAB.

Jauna (= *Jabweh*): Duvoisin, Uriarte, Kerexeta, EAB.

Yaube (= *Jabweh*): Olabide.

Yainkoaren Aingerua (= *Malakh Elohim*, 14,19): Olabide.

Jaungoikoaren ainguerua (= *Malakh Elohim*, 14,19): Uriarte.

Jaunaren Aingerua (= *Malakh Elohim*, 14,19): Duvoisin, Kerexeta, EAB (?).

14,19a: testu massoretikoan (eskuizkribu ezberdinetan) "Malakh Elohim" argi agertzen da, Zer dela-eta itzultzen dau EABk hemen Elohim "Jauna"? Gerkerako testuetan "ἄγγελος τοῦ Θεοῦ" agertzen da, baita *Vetus Latina*-n ("angelus Dei"), baina Bulgatan "Angelus Dei" jarri arren, Bulgatako testu batzuetan "Angelus Domini" agertzen da.

Ep 6,11-24:

Jauna (= *Jabweh*): Duvoisin (eta Uriarte), Kerexeta, EAB.

Yaube (= *Jabweh*): Olabide.

Jaunaren Aingerua (= *Malakh Jabweh*): Kerexeta, EAB, (Duvoisinek, 16,2: *Jaunaren Aingerua* idatzi beharren "Jauna" bakarik idatzi zuen).

Yauberen Aingerua (= *Malakh Jabweh*): Olabide.

Ep 6,20: Malakh Elohim: *Jaunaren Aingerua* (Duvoisin, Kerexeta, EAB), eta *Yauberen Aingerua* (Olabide). Ez dut uste batek ere ongi jarri duenik...

Testu massoretikoan Malakh Elohim agertzen da; eta testu honi dagokion bezala Gerkeraz "Septuaginta"k ἄγγελος τοῦ Θεοῦ itzuli zuen (Kodizeren batek (A) ἄγγελος τοῦ Θεοῦ jarri arren). Eta Kodize honen antzera Bulgatak ere *Angelus Domini* jarri zuen. Horregatik ez da harritzekoa, adibidez, Kerexetak Jaunaren Aingerua jartzea... Baina gehiago harritzen nau EABk (*Jaunaren Aingerua*) jarri izanak. (Alemanierazko EABk "Einheitsübersetzung"- *Engel Gottes* - *Jaungoikoaren Aingerua* jartzen du). Baina esan behar da Bulgata beste kodize batzuek "Angelus Dei" jarri zutela (adibidez, Codex Casinensis, Burgensis, Florentinus, Carafianus, etab.).

Nahiko argi dago *Malakh Elohim* testu originalarena dela.

b. **Gaztelera**

Gaztelanera

zko Biblia-itzulpenen historia luzea ezin dugu hemen bere osotasunean aztertu, mende honetako batzuk bakarrik ikusiko ditugu; mende honetan egin baitira batez ere testu jatorrizkoetik (heberkeratik) itzulpen serio eta asko.

Ir 3,1-6:

Dios (= *Elohim*): (Denak:) Nacar-Colunga, Bover-Cantera, Prof.-Salam., SJ-1967, Schöckel, LSB-1979, Bibl-Jerus-Bilbao, LB-1992...

Yavé, Yaveh, Yahvé (= *Jahweh*): Nacar-Colunga, Bover-Cantera, Prof.-Salam., SJ-1967, LSB-1979, Bibl-Jerus-Bilbao,

Señor (= *Jahweh*): Schöckel, LB-1992.

Angel de Yavé, Yaveh, Yahvé (= *Malakh Jahweh*): Nacar-Colunga, Bover-Cantera, Prof.-Salam., SJ-1967, LSB-1979, Bibl-Jerus-Bilbao,

Angel del Señor (= *Malakh Jahweh*): Schöckel, LB-1992.

"Jahweh" izenari buruz testu garrantzitsua *Ex 3,14* dugu; hemen agertzen dituzte itzultzaile gehienek *Jahweh*-ren itzulpena eta azalpenak:

"Yo soy el que soy": Nacar-Colunga, Bover-Cantera, Prof.-Salam., SJ-1967, Schöckel, LSB-1979, Bibl-Jerus-Bilbao, LB-1992.

Ir 13,17-14,31:

Dios (*Elohim*): Nacar-Colunga, Bover-Cantera, Prof.-Salam., SJ-1967, Schöckel, LSB-1979, Bibl-Jerus-Bilbao, LB-1992...

Yavé, Yaveh (*Jahweh*): Nacar-Colunga, Bover-Cantera, Prof.-Salam., SJ-1967, LSB-1979, Bibl-Jerus-Bilbao,

Señor (*Jahweh*): Schöckel, LB-1992.

14,19: Angel de Dios (*Malakh Elohim*): Nacar-Colunga, Bover-Cantera, Prof.-Salam., SJ-1967, Schöckel, LSB-1979, LB-1992.

Angel de Jahweh (*Malakh Elohim*): Bibl-Jerus-Bilbao.

Testu massoretikoan (eskuizkribu ezberdinetan) "Malakh Elohim" argi agertzen da. Greko

Θεὸς agertzen da, baita *Vetus Latina*-n ere ("angelus Dei"), baina Bulgatan "Angelus Dei" jarri arren, Bulgataren eskuizkribu batzuetan "Angelus Domini" agertzen da.

Ep 6,11-24:

Yavé, Yahveh (= *Jahweh*): Nacar-Colunga, Bover-Cantera, Prof.-Salam., SJ-1967, LSB-1979, Bibl-Jerus-Bilbao.

Señor (= *Jahweh*): Schöckel, LB-1992.

Angel de Yavé - de Yahveh - de Yahvé (= *Malakh Jahweh*): Nacar-Colunga, Bover-Cantera, Prof.-Salam., SJ-1967, LSB-1979, Bibl-Jerus-Bilbao.

Angel del Señor (= *Malakh Jahweh*): Schöckel, LB-1992.

6,20: Angel de Dios (= *Malakh Elobim*): Nacar-Colunga, Bover-Cantera, Prof.-Salam., SJ-1967, LSB-1979, LB-1992.

Angel del Señor (= *Malakh Elobim*): Schöckel.

Angel de Yahveh (= *Malkab Elobim*): Bibl-Jerus-Bilbao.

Hemen euskarazko itzulpenai buruz esandako gauza bera esan beharra dago, batez ere testu originalari buruz. *Schöckel* eta *Bibl-Jerus-Bilbao*ren irakurketa ez da logikoa...

c. Frantsesez:

Ir 3,1-6:

Dieu (=Elohim): LBJ, TOB.

Yahvé: LBJ.

Seigneur (= *Jahweh*): TOB.

Ange de Yahvé (*Malakh Jahweh*): LBJ.

Ange du Seigneur (*Malakh Jahweh*): TOB.

Jahweh izenari buruz (Ir 3,14) itzulpen hauek agertzen dira:
"Je suis celui qui est" (LBJ), "Je suis qui je serai" (TOB).

Ir 13,17-14,31:

Dieu (=Elohim): LBJ, TOB.

Yahvé: LBJ.

Seigneur (= Jahweh): TOB.

14,19: Ange de Dieu (= *Malakh Elohim*): LBJ, TOB.

Ep 6,11-24:

Yahvé: LBJ.

Seigneur (= Jahweh): TOB.

Ange de Yahvé (*Malakh Jahweh*): LBJ.

Ange du Seigneur (*Malakh Jahweh*): TOB.

d. Alemanieraz:

Alemanierazko itzulpen bi bakarrik ikusi ditut; biak iritzi ezberdinekoak...

Ir 3,1-6 (14)

Gott [Jainkoa] (= *Elohim*): Einheitsübersetzung (EAB), Jerus-Bibel.

Jahwe (= *Jahweh*): Jerus-Bibel.

Herr [Jauna] (= Jahweh): Einheitsübersetzung (EAB).

Engel des Herrn [Jaunaren Aingerua] (*Malakh Jahweh*): Einheitsübersetzung (EAB).

Engel Jahwes [Jahweren Aingerua] (*Malakh Jahweh*): Jerus-Bibel.

"Jahweh" izenari buruz testu garrantzitsua **Ex 3,14** dugu; hemen agertzen dituzte itzultzaile gehienek Jahweh-ren itzulpena eta azalpenak:

"Ich bin der *Ich-bin-da*" [Hemen nagoena naiz ni]: Einheitsübersetzung (EAB).

"Ich bin der ich bin" [Naizena naiz ni]: Jerus-Bibel.

Ir 13,17 - 14,31

Gott [Jainkoa] (= *Elohim*): Einheitsübersetzung (EAB), Jerus-Bibel.

Jahwe (= *Jahweh*): Jerus-Bibel.

Herr [Jauna] (= Jahweh): Einheitsübersetzung (EAB).

14,19: Engel Gottes [Jainkoaren Aingerua] (*Malakh Elobim*): Einheitsübersetzung (EAB), Jerus-Bibel.

Ep 6,11-24

Jahwe (= *Jahweh*): Jerus-Bibel.

Herr [Jauna] (= Jahweh): Einheitsübersetzung (EAB).

Engel des Herrn [Jaunaren Aingerua] (*Malakh Jahweh*): Einheitsübersetzung (EAB).

Engel Jahwes [Jahweren Aingerua] (*Malakh Jahweh*): Jerus-Bibel.

Engel Gottes [Jainkoaren Aingerua] (*Malakh Elobim*): Einheitsübersetzung (EAB).

Engel Jahwes [Jahweren Aingerua] (*Malakh Elobim*): Jerus-Bibel. (!).

2. "JAHWEH": ESANAHIA ETA GARRANTZI HISTORIKO ETA TEOLOGIKOA

a. Ir 3,1-6.14.

Jahweh izenaren une bere-berekoa eta historia aldetik garrantzitsuena **Ir 3,14** da. Hemen azaltzen da nola Jainkoak Israeldarrei agertu zien bere izena, edo izena baino gehiago bere *izana* aukeratutako herriari. Hain interesgarria den testua jarriko dut hemen:

¹ Moisesek Madiango apaiz Jetro bere aitaginarrebaren artaldea zaintzen zuen. Behin batean, basamortuan barrena artaldea eramane zuen eta Jainkoaren mendiraino, Horeberaino, iritsi zen. ² Han, Jaunaren [Jahweh-ren] aingerua agertu zitzaion sasi artean bizturiko sugarretan. Moises begira jarri zen: sasia, sutan egon arren, ez zen erretzen. ³ Moisesek bere bueruari ziotson: 'Hurbil nadin gauza harrigarri hori ikustera: nola liteke sasia ez erretzea?' ⁴ Begiratzera zetorrela ikustean,

Jaunak dei egin zion sasi artetik: - 'Moises! Moises! Hark erantzun: — 'Hemen nauzu!' ⁵ — 'Ez hurbildu -esan zion Jaunak-. Erantzi oinetakoak, zauden lekua lur santua baita. ⁶ Ni zure arbaso Abraham, Isaak eta jakoben Jainkoa naiz'. Moisesek aurpegia estali zuen, Jainkoari begiratzeko beldur baitzen.[.....] ¹⁴ Jainkoak erantzun zion: Izango naizena naiz. Beraz, honela esando diezu israeldarrei: 'Izango naizena naiz' deritzanak bidali nau zuengana". (EABtik hartuta).

EABko testu honetan bertso bi azpimarratu nahi nituzke, 4.a, eta batez ere 14.a. Laugarrenean, izenen arazoa kentzearen edo, itzulpena ez da, estiloari begituta, hain zuzena, zertxobait falta delako; eta huskeria badirudi ere, artikulua honetan erabiltzen dudana gaiari buruz badu bere garrantzia; bertso hori jarriko dut eta falta dena parentesi koadratuetan sartuko dut: "Begiratzera zetorrela [Jahweh-k = Jaunak] ikustean, Jaunak [Jainkoak (Elohim-ek)] dei egin zion sasi artetik: - 'Moises! Moises! Hark erantzun: — 'Hemen nauzu!' "

Hemen EABrentzat berdina da Jahweh eta Elohim, baina bi espresio ezberdin dira bi ekintza ezberdinentzat (eta estilo literarioari begira bakoitzak bere esanahi berezia du). Bi espresio bi ekintzarentzat: hau errespetatu egin dute itzultzaile gehienek, adibidez, alemanierazko Jerusalemgo bibliak eta alemanierazko elizen arteko bibliak, ez ordea gaztelerazko Jerusalemgo Bibliak...

Subjektu berdina delako, espresio edo izen ezberdinak kentzen baditugu, eta dena berdindu... badakigu zenbat arazo berri sor litezkeen... eta zenbat esanahi galtzen diren? Orduan zergatik, batzuetan *Jauna* eta beste batzuetan *Jainkoa?*, zergatik *Aingerua*, edo *Jaunaren Aingerua* eta *Jainkoaren Aingerua?* etab. etab....

b. **Jahweh: azalpen ezberdinak** (Ir 3,14)

"Jahweh" izenaren esanahia azaltzen ahalegintzen dira euren oharretan Biblia-itzultzaile gehienak. Hemen gehien erabiliak

eta gaur egunean gero eta gehiago onartuak diren azalpenak aipatuko ditut:

1. - "Ni naiz naizena" (Duvoisin), "Naizena naiz Ni" (Olabide).
 - "Dana naz ni" (Kerexeta).
 - "Yo soy el que soy" (Nácar-Colunga, Bover-Cantera, Prof.-Salam., SJ-1967, Schöckel, LSB-1979, Bibl-Jerus-Bilbao).
 - "Je suis celui qui est" (LBJ).
 - "Ich bin der ich bin" (Ni naiz naizena): Jerus-Bibel.
2. - "Izango naizena naiz": (EAB)
 - "Je suis qui je serai" (TOB).
3. - "Ich bin der *Ich-bin-da*" (Ni naiz hemen nagona [Ni naiz hemen naukazuna]): Einheitsübersetzung (EAB),

Jahweh-ren itzulpenen eta azalpenen artean hizkuntza ezberdinetan gehien erabilitakoa "Naizena naiz ni" izan da, hau da, Bulgataren bidetik itzultitakoak... Baina itzulpen honek filosofi kutsu markatuegia, sartalde kutsu handiegia du.... Bibliako idazleak existentzialkiago pentsatu eta idazten du, unean une-ko biziari lotuagoa, errealtate eta bizitzari lotuagoa, Jainkoa-ren esperientziari lotuagoa...

Horregatik "Jahweh" izenaren esanahiari hurbilako iruditzen zaizkit euskarazko, frantsesezko eta alemanierazko *Elizen arteko Bibliaren* itzulpenak: "Izango naizena naiz" ("Je suis qui je serai"), ("Ich bin de *Ich bin da*" [Ni naiz hemen nagoena]). (Alemanierazko liturgiako meza-liburu famatu eta herrikoiak, Schott-ek, aurrez argitaratua zuen itzulpen hau). Frantsesezko itzulpenean argiago azaltzen da: "*c'est-a-dire Je suis là, avec vous, de la manière que vous verrez*". Zentzua hortik doa: "erakutsiko dizut Nor naizen ni", hau da, "zeuk ikusiko duzu Nor naizen", hau da, ekintza handiekin erakutsiko dizut, zeure bizitzan ikusaraziko dizut Nor naizen: herria gidatzen, zaintzen, askatzen duen Jainko bizia... "Jahweh" izenak itzulpen bizia behar du, existentziari, esperientziari, historiari, teologiari, errealtateari lotua... Benetako Jainkoa (Jahweh), herriak soma-

tutako Jainkoa *bizia eta aktiboa (eraginkorra)* da, filosofiako ideologietatik at...

c. Esanahi historikoa eta teologikoa

"Jahweh" izenaren esanahia edo *izana* Moisesekin lotuta dago. JHWH izena edo antzekoa Moisesen aurretik beste herrietan bazen ala ez alde batera utzirik, gauza bat dago argi: Moisesen Jainko-esperientzia, baita herriarenean ere "Jahweh" oso berezia da, Jainko handi eta transzendentea beraien erdian beraien arteko agertzen da arrigarriro, Jainko bizi-bizia bihurtu da, beste inongo herritan ez entzun ez izan zena bezalakoa...

Izen eta izan hauek Israelen historia luze eta berezia gauzatu dute... a.) Jahweh-ren Moisesen ezagutzea Horeb, "Jainkoaren" (Elohim) mendian. b) Jahweh-k Moisesengan agertu zuen ahalmena Faraonen eta Egiptoren aurrean. c) Israel askatasun bidean, basamortuan, mendetan zehar Israel herriaren erdian...

"Jahweh" denon aho eta bihotzetan dago, denon indar eta ikurra da, ahalmenaren presentzia somatzen dute..., baita bizi-emaearen presentzia ere... Eta nahiz eta herria sarri bide onetik aldentu eta Jahweh-ren handitasuna ahaztu..., beti agertuko dira historian zehar bizi izandako presentzia horren suspertzaileak, profetak, etab...

Israel herriaren historian beti iraungo du *Jahweh* askatzailearen oroimen biziak; Pazko jaia... Jahweh eta *Iteera* liburuko bere ekintzak beti izango dira benetako Jainko biziaren erreferentzia...

Baina Jahweh-ren esperientzia hori elkarri eman eta azaltzeko ez ote du bere historia berezia egingo?: hasieran edo lehenengo belaunaldietan esperientzia eta presentzia horiek biziak baziren ere, ez ote ziren mendeetan zehar hoztuz joango, urrunduz joango, hain hurbil eta herriaren barruan zen Jainkoa, gero eta urrunago, transzendenteago bilakatuz?... Horrek ez al du beste hau ekartzen?: Lehenagoko gauza harrigarrien

oroimena, Jainkoaren uruntasuna..., baina bestetik itzala handitzea, presentzia hori gero eta urrunago eta beldurgarriago... itzaltsuago, eguneroko bizitzatik urrunago... eta azken batean itzalaren itzalez "Jahweh" izena bera ere ahoan ez erabiltzeraino?...

Eta belaunaldiak joan, belaunaldian etorri, kultura bat joan, bestea etorri... "Jahweh"ren ordez "adonai" esaten hasiko ziren, "kyrios" batez ere grekoen *artean*; baina Kristoren ostean ere badakigu Juduentzat eginiko grekozko itzulpen batzuetan JHWH agertzen dela eta ez *Kyrios*; geroxeago Kristauak *Jhwh*-ren ordez *Kyrios* sartzea lortu zuten.

"Jahweh" juduen batzarretan edo liturgian Erreferentzia garrantzitsua zen: erreferentzia historikoa eta teologikoa. Jahweh-ren ekintza handiak bakoitzaren bihotzean pizten ziren, bakoitzaren poztasunerako, bakoitzaren eta herri osoaren, itxaropenerako.

Zer da, ba, "Jahweh"ren esanahia? Lehendabizi "JAHWEH" *izenak* berak du esanahia; eta esanahi hau sakonago bihurtzen da historiarekin, ekintzekin; eta oraindik barnekoia bakoitzaren bihotzeko esperientziarekin... *Izena* kentzen bada, nola lotu *izana* beste izen eta esannahi ezbedin batekin? Historia eta gaurkotasuna urruntzen, aldentzen ala hurbiltzen eta lotzen ari ote gara Bibliatik "Jahweh" kentzean?

Irteera liburuko askatasunerako ekintza handiak "Jahweh"rekin loturik daude... ez beste jainko izenekin... Askatasunezko bidea "Jahweh" da, askatasunerako helburua "Jahweh" da. Israel herriaren Jainko-esperientzia "Jahweh" da, herri barruan bizi den Jainko biziaren esperientziaren eta historiaren oroimenean "Jahweh" izango da.

Askotan, arazoen astertzean eta bideratzean, gai historiko eta teologikoak azaltzean, gaiak errazten, simpleago egiten ahalegintzen gara..., batasunerantz jotzen dugu...; eta ekintza honek bai errazten dizkigu gauzak, baina ez ote da errealitatea iluntzen askotan? Adibidez, ez al daude beste datu asko "Jah-

weh" izenari loturik?, adibidez narrazioaren estilo bereziari? Eta estilo literarioek ez al dute esanahi teologikoa beren barnean? Ikus eta azter dezagun zertxobait bide hau.

3. "JAHWEH": ITURRIAK ETA ESTILOAK

a) Iturriak

aa. *Espresio ezberdinen erabilpena*

Artikulu honen hasieran esan dugu, bibliako testuetan arazo ugari agertzen direla ulertu eta itzultzeko. Adibidez, artikulu honetan ari garen gaian: Pertsona edo subjektu berbera izen ezberdinez agertzen da, eta, hau da harritzekoa, eszena edo kontakizun labur baten barruan. Biblian zehar askotan ikusten dugu hau: Has 16,7-13; 18-19; 22,1-18; Ir 3,2-6; 13,17 - 14,31; Zen 22,22-35;23,4-5; Ep 2; 6,11-24; 13,1-25; 1 Erg 19,5-14; 2 Erg 1,9-18;1 Kro 21,1-15; 2 Sm 24, 15-17, etab. Idazlan labur honetan adibide bezala hiru testu hartu ditugu: Ir 3,1-6; Ir 13,17 - 14,31 eta Ep 6,11-24.

Izenen aldaketa hau argia da **Jabweh** eta **Makakh Jabwebren** artean; baina espresioen aldaketen jokoan honekin batera beste izen batzuk ere sarten dira: "Jahweh" (EAB: Jauna), "Elohim" (Jainkoa), "Malakh Jahweh" (Jahweh-ren aingerua), "Malakh Elohim" (Jainkoaren aingerua), baita naturako gauzen izenak ere (hodeia, sua...), etab.

bb. *Azalpen ezberdinak*

Biblian adituak direnen eta exegeten artean aspaldi sortu zuen harridura izenen aldaketa honek, eta errealtate honen zergatia azaltzen labur bada ere ahalegindu arren, ezinean gelditu dira. Eta horregatik gai honetaz gutxi idatzi da...

Batzuentzak izenen aldaketa hau aldaketa *nabasia* da (G. Cornfeld/G.J. Botterweck), misterioitsua (E. Kalt), iluna (P. Heinisch)... irtenbide gabekoa (W. Eichrodt).

Batzuentzat aldaketa horretan sistemarik ez dago (J. Touzard, A. Clamer), beste batzuentzat bai (H. Junker, O. Procksch, F. Nötscher...).

Badira aldaketa hori "Malakh" izena gero sartu edo gehitu delako dagoela esaten dutenak (testu batzuei begira hori azaltzen dute autore hauek: W. Baumgartner, Alonso Schöckel, A. Schulz, G. Beer/K. Gallig, etab.)... Baina azalpen honek arazoa ez du baztertzen...

Badira beste bidetik azaltzen duten autoreak: aldaketa honetan asmo estilistikoa edo artistikoa (baita teologikoa ere) ikusten dutenak (P. Volz/W. Rudolph, G. Cornfeld/G.J. Botterweck, M. Noth, R. North..., batez ere G. von Rad eta H. Gunkel)...

b) Iturri bakoitzeko eta testu batuaren arazoak.

aa. Ezberdintasunak berdintzen?

Izenen aldaketetan batzuetan azalpen errazera jo izan da: izen ezberdinen ordez askotan bat jarri da, adibidez *Jaunaren Aingerua* edo *Jahwehren Aingerua* eta *Jainkoaren Aingerua* edo *Elohim-en Angeruaren* ordez *Jaunaren Aingerua* jarri; edo *Jahweh* eta *Elohim-en* ordez *Jainkoa*, edo *Jauna*, etab.

Zenbait Biblia-aztertzaile edo exegeta, leku edo testu batzuetan, izen batzuk geroago sartuak izan direla ohartu dira, adibidez, *Aingerua (Malakh)*; baina hau gertatu izan da testu konkretu batzuetan bakarrik... Eta hemendik ezin da ondorio orrokorrik atera.

Edo beste batzuetan aldaketa hau gertatu izan da, iturri ezberdinak batu direlako kontakizun berean... Baina ez dezagun arrazoi errazegirik erabili, eta pentsatu izen ezberdinen erabilera hori iturri ezberdinetako testuen arabera dela (J, E, P), ez; nahastatu gabeko testuetan ere (adibidez, *Jahwista* hutsa den testuan) arazo bera edo izen ezberdinen erabilera agertzen baita.

Horregatik galdera egin beharra dago: Zergatik? Izen horien artean "Jahweh" ere agertzen da. Hori dela-eta hausnarketa batzuk egingo ditut...

bb. *Konponbidea (irtenbidea): estiloari dagozkion formak...*

Orain Bibliako hiru testu hartu eta erakutsi nahi ditut; eta esatera ezberdinak ikusiko ditugu, hau da, literatur estiloaren ikuspegitik, esanahi ezberdina dutela. Beraz, gehienetan subjektu bera izan arren kontakizun labur baten barruan izen edo espresio ezberdinak agertzen dira: 1. gauzak eta pertsonak: sua, hodeia, gizonak.. 2. Malakh (Aingerua), Malakh Elohim (Jainkoaren Aingerua), Malakh Jahweh (Jahweh-ren Aingerua), 3. Elohim; eta azkenean, gailurrean, JAHWEH.

Hemendik honako hau ateratzen dugu: teologia eta historia alde batera utzita ere, *estilo* aldetik Jahweh eta Elohim-ek esanahi ezberdintxoak dutela.

Ir 3,1-6.

Izen edo espresio aldetik:

(A) Sua: 2; (B) Malakah Jahwe: 2; (C) Elohim: 4b; (D) Jahweh: 4a.7.

(α) Sasia sutan - baina erre ez: harrigarria (2).

(β) Jahwehren Aingerua "agertzen da" (4a)

(γ) Jahweh-k "ikusi" (4a)

(γ²) Elohim-ek "dei egin" (4b)

(δ) BERA (Jahweh) dena daki... eta Israeldarren askatasuna nahi du (7)

Efektuek edo Espresioen "ekintzen" ondorioak:


(a) Sasiak eta suak: jakinahia edo *ikusmina* pizten dute

(b) Jahweh-ren Aingeruak (+ suak): Moises mugitzen du han gertatua ikustera joateko.


(c) Elohim-ek (Jainkoak): elkarriketa hasten du: Jainkoaren eta Moisesen kontaktua.

(d) *Jahwebren Handitasunak* beldurra sortzen du Moisesengan, baita Israeldarren askatasuna ere.

Estiloari dagokion analisi hau era honetara eskema batean labur genezake:



Espresio edo Izenen hurrenkeraren arabera paralelismo batekin lotuta dagoela esan liteke:



Ir 13,17 - 14,31


Izen edo *espresio* aldetik: hiru izenen hiru rol ezberdin ikusten ditugu:

- | | | |
|------------------------------------|--------------------|---------------------|
| (A) Laino-adarra (sua); | (B) Malakh Elohim; | (C) Jahweb. |
| (α) Arriskutik babestea: | | Laino-adarra (sua). |
| (β) Hurragoko arriskutik babestea: | | Malakh Elohim. |
| (γ) Heldutako arriskutik babestea: | | Jahweb. |


Arriskuen handitasunaren arabera ikusten dugu *efektuen neurria*:

- | | |
|--|-----------------------------------|
| (aa) Arriskua oraindik urrun dagoenean | Laino-adarra (sua) dago babesten. |
| (bb) Arriskua hurbil dagoenean | Malakh Elohim da babestaile. |
| (cc) Arriskuari aurre egin behar zaion unean | Jahweb dago: arerioak suntsitzen. |

Estiloari dagokion analisi hau era honetara labur genezake eskema batean:



Espresio edo Izenen hurrenkeraren arabera paralelismo batekin lotuta dagoela esan liteke:



Ep 6,11-24

Hemen ere ikusten dugu *izen* edo *espresio* aldetik bakoitzaren jokabidea: bakoitzaren ekintzak eta ondorioak (klimatikoki dramatika barruan bezala) izenen erabilera eta izenen ekintzen garrantzia gorantz doaz:

1. A) Malakh Jahweh, B) Jahweh. 2. A) Malakh Elohim, B) Malakh Jahweh, C) Jahweh:

Aktibitatea:


1. (α) Malakh Jahweh "agertzen da"
- (β) Jahweh-k hitz egin eta agintzen du.
2. (γ) Malakh Elohim-ek hitz egiten du.

Ondorioak:

- a) Gedeon-ekin el-karrizketa.
- b) Gedeon-engan inpresioa (+ agindua).
- c) Gedeon-ek hala egiten du.

- (δ) Malakh Jahweh-k eskuko makila luzatu. d) Okela... kiskali. Gedcon-en harridura.
- (ε) Jahweh-k erantzuten du. e) Beldurretik askatuta, Gedeon-ek aldaera eraiki zuen.

Estiloari dagokion paralelismo klimatiko hau era honetara labur genezake eskema batean:



ONDORIOAK:

Bulgatari jarraituz egindako itzulpenetan, gehienetan, *Jauna* agertzen da *Jahweh*ren ordez. Mende honetako Bibliagaian jakintsuek eta exegeta gehienek (eta asko izan dira), katolikoek nahiz protestanteek, batez ere aleman hizkuntzako munduan, hizkuntza originalak erabili dituztenek, *Jahweh* jarri izan dute... Baina azken urteotan berriro batzuek lehenagoko Bulgataren ildotik egindako itzulpenen esaldiari jarraitu izan diote (ez Bulgatari jarraitzearen, beste arrazoi batzuegatik baizik), eta *Jahweh*ren ordez *Jauna* jartzen dute..., adibidez Schöckel-ek, Elizen arteko Bibliak (Euskaraz, frantsesez, alemanieraz, gaztelaniaz...), etab.

Beste aldetik ikusi dugu kontakizun berean izen ezberdinak erabiltzen direla... Eta honek buruhauste handiak ekarri ditu Biblia itzultzean eta azaltzean.

Izenen erabilerak, hau da, izenen edo espresioen aldaketak kontakizun beraren barruan, literatura aldetik bere arrazioa eta esanahia ditu. Horregatik bata bestearen ordeztartzeak bere arazoak ditu, eta gehiago Jainko-esperientzia eta historia kontuan hartuz gero.

Nik hau galdetzen dut: ez al den galera Bibliako espresio jatorrak kentzea edo aldatzea edo berdintzea, beraien esanahi literarioa, historikoa eta teologikoa galbidean jarritz... Argi ikusten dut: arrazoi historikoak, psikologiko-soziologikoak eta teologikoak alde batera utzirik ere, Bibliako *estilo literarioari* dagokiola espresio ezberdinak errespetatzea, eta besteen artean JHWH.

Julen Urkiza